

PAULEN EGUNEROKOA

Kaixo, ni Paul naiz 5 urte ditut eta gaur esan didate Hepatitis C minbizia izan ahal dudala eta apur bat urduri nago espero dut ezer ez izatea. Idatzi hau kaxa baten sartu behar dugu 10 urte barru kaxa zabalduko dugu, ikusteko zer aldatu den gure bizitzetan. Egia esanda hau nire ama dago idazten nik ia ez dakit idazten.

10 URTE ONDOREN

Irailak 8

Gaur kaxa zabalduko dugu eta oso pozik nago, ez dut gogoratzen zer ipini nuen idatzi horretan eta apur bat urduri nago, orain eskolan nago nire aitari itxaroten, beti berandu iristen da nire bila baina ez naiz harritzen egunero gertatzen da.

Irailak 10

Gaur oso nekatuta nago eta sabeleko mina dut, baina hori ez da axola orain kapsula zabalduko dugu eta orain dela 10 urte idatzi nuela irakurriko dut. Idatzia irakurri ondoren, pentsatzen hasi naiz eta uste dut Hepatitis C minbizia izan ahal dudala eta nire amari ospitalera joateko eskatu diot. Ospitalera heltzerakoan doktoreari gertatzen dena kontatu diogu eta odol frogat bat egin didate. Hogei minutu ondoren emaitzak esan dizkirate eta zoritxarren, Hepatitis C minbizia dut.

Irailak 12

Ospitalera egon behar naiz denbora batez dena hobetu arte, tratamendua garestia izan arren hainbat familiako kidek laguntzak eman dizkigute eta tratamendua pagatzea lortu dugu. Nire ama laguntza askokoa izaten dabil eta harremana sendotzen ari gara, nire aita aldiz gutxitan etortzen da eta etortzen denean arraro xamar egoten da, baijan ez du axola.

Irailak 15

Hainbat egunez ez dut idatzi, baina apur bat arduratuta nago nire aita zer bait duela uste dut baina ez dakit zer eta hori gutxi izaten bada tratamendurako 50.000 euro behar ditugu eta ez dugu horren beste diru. Hainbat gauza egin beharko ditugu eta lehen ideia web orri bat sortzea da jendeak donazioak egiteko, espero dut horrela dirua lortzea eta ni hobe egotea.

Irailak 20

Web-orria oso famatua izaten hasi da eta bihar nire ama telebistan agertuko da nire minbizia azaltzen eta donazioak egiteko eskatuko die ikusten egongo diren guztiei. Nire aita gero eta arraroago dago eta ez diot galtzea nahi baina nik ezer jakin gabe uste dut, ez dagoela guztiz ondo.

Irailak 25

Gaur donazioak egiteko azken eguna zen eta zoritxarrez ez dugu dirua lortu eta honek ez du itxura ona egunero txarkiago sentitzen naiz eta nire amak lagundu herran ez nago guztiz ondo, eskolako lagunak hainbat aldiz etorri dira baina momentu horiek politak izan harren beste momentu denak ez dira onak. Orain txarki egon harren egunero nire buruak aurrera egiteko esaten dit eta lortuko dudala esaten dit bihotzak.

Irailak 30

Nire aita azken egun hauetan oso kantsatuta ikusten dut, lan asko egiten dagoela esaten dit eta ama fundazio bat sortzea nahi duela esan du, baina arraro xamar daude eta niri zerbait askutatzen dabiltzala uste dut eta txarrena imajinatzen hasi naiz baina uste dut horretan ez dela pentsatu behar eta orainean pentsatu behar dudala uste dut.

Urriak 5

Gaur esan didate tratamendua 10 egunetan pagatzen ez badugu arriskuan egongo naizela eta hori asko bada nire aita irailak 30 galduta dago ez digu deierik hartzen eta ez da etxetik pasa amak esan duenez. Emozionalki gaizki nago, triste sentitzen naiz eta batzuetan haserre eta bakarrik nagoela uste dut.

Urriak 10

5 egun gelditzen dira tratamendua pagatzeko, gaur nire amak kontzertu bat egin du dirua lortzeko eta uste dut oso ondo aterala dela, bestalde, nire aita ez da agertzen eta beldurtzen hasi naiz nire lagunak egunero etortzen hasi dira eta bakardadea gutxitzen hasi da.

Hainbat enpresek nire amarekin kontaktatu dute dirua lortzeko baina oraindik dirua faltan dugu.

Urriak 15

Gaur tratamendua pagatzeko asken eguna da eta zorionez nire aita agertu da eta dena kontatu dit, gauetan lanean egon da dirua lortzeko eta hainbat gauza saldu ditu eta tratamendurako diru nahikoa dugu, baina, berak era minbizia du ez daki zer den baina bera ere gaizki dago. Halere biak batera egonda pozik gaude eta hau laster bukatuko dela uste dut.

Urriak 20

Aurrekoan ondo negoela esan harren gaur zaintza intentsiboko unitatean sartu didate eta dena behinbetean bera etorri da, nire aita ondo egon harren minbizia du eta orain uste ez dudala minbizia gaindituko.

Urriak 25

Zaintza intentsiboko unitatean nago, triste eta bakar nago eta ez diet nire lagunei ikusten eta nire familiari ere ez. Momentu zail batean nago, baina onetatik irten egingo naizela dakit.

Urriak 30

Gaur oso nekatuta esnatu naiz eta idaztea ere kostatzen zait, baina azken aldiz idatzi nahi dut. Azken egun hauetan gauza asko ulertu dut, batez ere nire aitarena. Nik uste nuen ez zegoela nirekin, baina egia esan beti egon da, nahiz eta nik ez ikusi. Nire ama beti nire ondoan egon da eta oso harro nago bera izateaz. Nire lagunak ere asko lagundu didate eta ez naiz hain bakarrik sentitu. Ez dakit zer gertatuko den hemendik aurrera, baina badakit asko maite ditudala denak eta pozik egon naiz bizitako guztiarekin. Apur bat beldur naiz, baina lasai nago ere bai.

Azaroak 5

(Gutun hau nire amak idazten du)

Paul atzo gauean joan zen, lasai, gure artean zegoela. Azken momentura arte indartsu egon zen eta beti irribarre batekin. Orain dela 10 urte zorte izan zuen baina aurten ez du zorte berdina izan Bere egunerokoa irakurtzen ari naiz eta ezin dut sinetsi zein ausarta izan den. Bere aitak eta biok beti eramango dugu gure bihotzean, eta bere hitzek betirako jarraituko dute gurekin. Kaxa berriro itxiko dugu, baina oraingoan barruan Paulen istorioa geratuko da, inoiz ahaztu ez dadin.